



Iruñeko Udala, 2020



2021eko azaroa



CÁMARA DE
COMPTOS
DE NAVARRA
NAFARROAKO
KONTUEN
GANBERA



AURKIBIDEA

LABURPEN EXEKUTIBOA	3
I. SARRERA	4
II. IRUÑEKO UDALA	5
III. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA	9
IV. IRITZIA	10
IV.1. Auditoretza finantzarioko iritzia	11
IV.2. Legeria betetzeari buruzko iritzia	11
V. EGOERA-ORRI FINANTZARIO BATERATUAK	12
V.1. 2020ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazio-egoera bateratua.....	12
V.2. 2020ko ekitaldiko aurrekontu-erailza bateratua	13
V.3. 2020ko ekitaldiko diruzaintzako gerakinaren egoera-orria.....	13
V.4. Egoeraren balantze bateratua 2020ko abenduaren 31n.....	14
VI. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK	15
VI.1. Aurrekontu orokorra	15
VI.2. Udalaren eta haren erakunde autonomoen egoera ekonomiko-finantzario finkatua 2020-12-31n ...	17
VI.3. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuak betetzea	18
VI.4. Aurreko ekitaldietako gomendioen jarraipena.....	18
VI.5. Kudeaketa-alor garrantzitsuak	19
ERANSKINA: IRUÑEKO UDALAREN URTEKO KONTU BATERATUEN OROITIDAZKIA, 2020KO ABENDUAREN 31KOA	44





Laburpen exekutiboa

Kontuen Ganberak 2020ko ekitaldiari dagokion Iruñeko Udalaren Kontu Orokorra fiskalizatu du.

Hona hemen gure lanaren konklusio nagusiak:

1) Udalaren Kontu Orokorrak, oro har, kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio aplikagarrien arabera egindako eragiketa guztiak islatzen ditu. 2020an, udal montepioaren etorkizuneko betebeharren hornidurari buruz behin eta berriz emandako gomendioa bete da, finantza-iritzian salbuespena sortzen zuena.

2) Jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2020ko ekitaldiko urteko kontuetan islatutako informazioa, egindako lanaren irismena kontuan hartuta, bat datoz funts publikoen kudeaketari aplikatu beharreko araudiarekin alderdi esanguratsu guztietan. Salbuespen gisa aipatzen dira mugaeguneratutako kontratuekin ordaindutako 2,57 milioiko gastua eta aurretiazko esku-hartze mugatuari dagokiona.

3) Udalak merkataritza-zorraren iraunkortasunari buruzko betebeharrak bete ditu, berankortasunari buruzko araudian aurreikusitako gehienezko epea ez baita gainditu.

4) 2020ko abenduaren 31ko finantza-egoera oso egonkorra eta onbideratua da, adierazle ekonomiko eta finantzario nagusiek erakusten duten bezala, aurreko ekitaldiarekin alderatuta hobetu egin baitira. Ildo horretan, aurreko urteetan hasitako bide positiboa egiaztatu da. Bereziki nabarmentzekoa da aurrekontu-emaizta doituaren eta gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren igoera handia.

5) Langileei dagokienez, udalean hutsik dauden lanpostuak plantillako 1.625 lanpostuen % 46 dira, eta horietatik ehuneko 80 aldi baterako beteta daude. Nabarmentzekoa da aldi baterako kontratazioaren ehuneko handia, finkoak ez diren langile mugagabeak barne hartuta, ehuneko 41ean kokatzen baita. 2020an 119 lanpostuko lan-eskaintza publikoa onetsi da, 40 birjarpen-tasaren babesean eta 79 enplegua egonkortzearen bidetik. Behin-behinekotasuna murrizteak enplegu-deialdi publikoak arintzea eskatzen du.

6) Kontratazio-prozedurek, oro har, indarreko araudia betetzen dute. Hala ere, uste dugu beharrezkoa dela prozedura horien denbora-plangintza egokia egitea, kontratuen gehieneko indarraldia ez gainditzeko.

7) Balorazio Osoaren Ponentziak onartzeke jarraitzen du, Ganbera honek behin eta berriz gomendatzen duen bezala.

8) Bi erakunde autonomoei dagokienez (Haur Eskolak eta Hirigintza Gerentzia), neurriak hartu behar dira langileen behin-behinekotasun handia murrizteko.





I. Sarrera

Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Lege arautzailearekin eta 2021eko jarduera programarekin bat etorriz, 2020ko ekitaldiari dagokion Iruñeko Udalaren Kontu Orokorra fiskalizatu du.

Txostena sei epigrafetan egituratuta dago, sarrera hau barne. Bigarrenean, udalaren daturik esanguratsuenak deskribatzen ditugu; hirugarrenean, fiskalizazioaren helburuak eta irismena identifikatzen ditugu; laugarrenean, 2020ko ekitaldiari dagokion udalaren Kontu Orokorri buruzko finantza-iritzia eta legezketasuna betetzeari buruzko iritzia ematen dugu; bosgarrenean laburpena dago. Seigarrenean, udalaren aurrekontu- eta finantza-egoerari buruzko konklusioak eta gomendioak, aurreko txostenetako gomendioen jarraipena eta kudeaketa-arlo garrantzitsuenak jaso ditugu.

Txostenak eranskin bat du Iruñeko Udalaren 2020ko abenduaren 31ko kontu bateratuen oroitidazkiarekin.

Eremu-ikerketa 2021eko uztaila eta iraila bitartean egin zuen hiru teknikarik eta auditoria-teknikari batek, sistema informatikoetako erdi-mailako teknikari batek eta auditore batek, Ganberako zerbitzu juridiko eta administratiboen laguntzarekin.

Jarduketa horren emaitzak Iruñeko Udaleko alkateari jakinarazi zitzaizkion, egokitzat jotzen zituen alegazioak aurkez zituzan, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ezarritako epea igarota, ez da alegaziorik aurkeztu.

Eskerrak ematen dizkiegu udaleko, haren erakunde autonomoetako, enpresa publikoetako eta bide publikoan aparkatzeko kontratuaren adjudikaziodun den Dornier SA enpresako langileei lan hau egiteko emandako laguntzagaririk.





II. Iruñeko Udala

Iruña, Nafarroako hiriburua, 2020ko urtarrilaren 1ean 203.944 biztanle (107.576 emakume eta 96.368 gizon) dituen udalerrria da, 25,1 km²-ko hedadurarekin.

Udal antolaketa, besteak beste, honako organo hauek osatzen dute: Osoko Bilkurak, ordezkaritza politiko goreneko organoak, Tokiko Gobernu Batzarrak eta Alkateztzak.

Udalaren 2020rako administrazio-egitura bederatzi alorrek osatzen dute, Alkateztza barne. Gainerako alorrak zinegotzi ordezkarien menpekoak dira.

Udalak, zerbitzu publikoak kudeatzeko, erakunde hauek sortu ditu:

- Erakunde autonomoak:

Udalaren haur eskolak: haur eskolen zerbitzuaren kudeaketa.

Hirigintzaren Udal Gerentzia: Iruñeko udalerrriaren hirigintzaren kudeaketa.

- Merkataritza-sozietateak:

Udalak partaidetzaren gehiengoa dauka honako merkataritza-sozietate hauetan:

Enpresa	Partaidetza (%)	Xede soziala
Comiruna SA	100	Txikizkako merkatuak
Pamplona Centro Histórico SA	100	Hirigune historikoko hirigintza
Iruñeko Udalaren Energia Operadorea SL (*)	100	Argindarra merkaturatu eta ekoiztea
Animsa SA	77,69	Udal informatika.
Mercairuna SA	51	Handizkako merkatuak

(*) Osoko Bilkurak 2020ko uztailaren onetsitako desagitea eta Batzar Orokor Unibertsalak 2020ko azaroaren 27an onetsitako behin betiko likidazioa.


- Gayarre Antzokia Fundazioa, antzoki hori kudeatzeko eta administratzeko.

Gainera, Erruki Etxearen Fundazioa, hirugarren adinekoei laguntza ematen diharduena, udalari lotuta dago orain dela 300 urte baino gehiago, baina fundazio pribatu bat da.





Udalaren eta haren mendeko erakundeen osaera honako irudi honetan ikusten da:





Hona hemen 2020ko ekitaldia ixtean udalaren eta haren mendeko erakundeen datu ekonomiko eta pertsonal nagusiak:

- Administrazioaren sektore publikoa:

Entitatea	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileria 2020-12-31n
Udala	220.711.844	207.711.486	1.721(*)
Haur Eskolak	8.257.375	8.750.971	230
Hirigintzako Gerentzia	9.971.865	6.090.706	26
- Baleratzearen doitzak	-12.169.045	-12.169.045	-
Bateratua, guztira	226.772.039	210.384.118	1.977

(*) Ez ditugu barne hartzen beren prestakuntzaren II. fasean dauden eta Gizarte Segurantzari alta emanda dauden Lantegi Eskolako 100 ikasle.

2020an, udalak 7,25 milioi eman zizkion Haur Eskolei, eta 4,91 milioi Hirigintzako Gerentziari.

- Merkataritza-sozietateak:

Sozietate publikoa	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitza	Batez besteko plantilla, 2020
Comirruña SA	459.486	415.332	44.154	6
Pamplona Centro Histórico SA	524.182	1.036.858	-512.676	3
Iruñeko Udalaren Energia Operadorea SL	46.679	46.679	-	1
Animsa	7.535.344	7.532.208	3.136	108
Mercairruña SA	1.259.285	1.080.556	178.729	12

2020ko azaroan, Iruñeko Udalaren Energia Operadorea SLren Batzar Orokor Unibertsalak sozietatea likidatzea eta behin betiko desegitea erabaki zuen.

Era berean, likidazioaren azken balantzea eta sozietatearen aktibo guztien jabetza udalari transferitzea onartu zen, horrela udalak sozietatean dituen partaidetzak iraungiz.

- Fundazioak:

Fundazioa	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitza	Batez besteko plantilla, 2020
Gayarre Antzokia	1.407.953	1.425.752	-17.799	15

Udala, halaber, Iruñerriko Mankomunitatean sarturik dago, zeinak honako zerbitzu hauek ematen baititu: uraren ziklo integralarenak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamenduarenak, eskualdeko hiri-garraioarena. Horren alde onartutako gastua, 2020an, 2,4 milioikoa izan da, oso-osorik hiri-garraioaren zerbitzuari dagokiona.





Udalak ematen dituen zerbitzu publikoak eta horiek emateko modua honako hauek dira:

Zerbitzua	Zuzeneko kudeaketa			Zeharkako kudeaketa		Mankomunitatea
	Udala	Era-kunde auto-nomoak	Enpresa publikoa	Zerbitzu-emakiden kontratua	Zerbitzu-kontratua	
Argiteria publikoa	X				X	
Hilerria	X					
Hiri-hondakinak bildu eta tratatzea						X
Kale-garbiketa	X				X	
Uraren ziklo integrala						X
Estolderia	X					
Parke publikoa	X				X	
Liburutegia-ludoteka	X					
Gizarte zerbitzuak	X					
Kirol instalazioak	X				X	
Bidaiarientzako hiri barruko garraio kolektiboa						X
Hirigintza	X	X	X			
Udaltzaingoa	X					
Ingurumena	X				X	
Kulturaren sustapena eta kultur ekipamenduak	X				X	
Ikastetxe publikoak mantentzea	X					
Merkatua			X			
Berdintasunaren sustapena	X					
Turismo-jardueraren sustapena	X					
Merkataritza ibiltaria	X					
0-3 urtekoen ikastetxeak		X				

2020an udalari eta haren erakunde autonomoei aplikatzekoa zaien arau-esparrua, funtsean, honako hauek osatzen dute: 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa; 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa; Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea; 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; bai eta indarrean dagoen araudi sektoriala ere.





III. Fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa

Udalaren 2020ko ekitaldiko finantza- eta legezketasun-ikuskapena egin dugu, honako hauei buruzko iritzia emateko:

- Kontu Orokorrak, alderdi esanguratsu guztietan, 2020ko abenduaren 31ko ondarearen, finantza-egoeraren, aurrekontuaren likidazioaren eta emaitza ekonomikoaren irudi fidela adierazten duen, aplikatu beharreko arau-esparruarekin bat etorritik, eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta -irizpideekin bat etorritik.

- Ea udalak eta haren mendeko erakundeek 2020ko ekitaldian egindako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta Kontu Orokorrean jasotako informazioa bat datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatu beharreko araudiarekin.

- 2019ko ekitaldiko fiskalizazio-txostenean emandako gomendioak betetzea.

Gainera, erakunde autonomoetan, enpresa publikoetan eta Gayarre Antzokia Udal Fundazioan kanpoko profesionalek egindako auditoriak aztertu dira.

Fiskalizazioaren irismena Iruñeko Udalaren 2020. urteko Kontu Orokorra da, eta honako hauek osatzen dute:

- Udalaren eta haren erakunde autonomoen kontua:

- a) Aurrekontuaren likidazioaren espedientea.
- b) Ekonomia-, ondare- eta finantza-egoeraren espedientea, zeina egoera-balantzeak eta galdu-irabazien kontuak osatzen baitute.
- c) Eranskinak: diruzaintzako egoera, etorkizuneko gastuen eta diru-sarreraren konpromisoen egoera, baloreen egoera eta mugimendua, eta tasa eta prezio publikoekin finantzatutako zerbitzuen kostuen oroitidazkia.

- Entitateak partaidetza guztiak dituen merkataritza-sozietateen kontuak.

- Kontu orokorraren eranskinak.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2020ko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruz behar diren egiaztapenak egin dira, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

Legeria betetzeari dagokionez, norainokoa txosten honen VI. atalean aipatzen diren laginetan berrikusitako eragiketei dagokie.





IV. Iritzia

Iruñeko Udalaren 2020ko ekitaldiko Kontu Orokorra fiskalizatu dugu. Kontabilitateko egoera-orriak txosten honetako V. epigrafean laburbilduta daude.

Udalaren erantzukizuna

Udaleko Ogasun Zuzendaritza arduratzen da Kontu Orokorra osatzeaz, udalaren aurrekontu-likidazioaren, ondarearen, emaitzen eta finantza-egoeraren irudi fidela adieraz dezan, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoaren arau-esparruarekin bat etorritik; erantzukizun horren barruan sartzen da Kontu Orokorra egiteko eta aurkezteko bidezko barne-kontrola sortzea, ezartzea eta mantentzea, iruzurrak edo erroreak eragindako oker materialik gabe.

Udalaren Osoko Bilkurak 2021eko urriaren 7an onetsi zuen Kontu Orokorra.

Urteko kontuetan jasotako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa aplikatzekoak diren arauekin bat datozela bermatu behar du udalak, eta helburu horretarako beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolerako sistemak ezarri behar ditu.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna erantsitako Kontu Orokorren fidagarritasunari eta egindako eragiketen legezotasunari buruzko iritzia ematea da, gure fiskalizazioan oinarrituta.

Horretarako, kanpo-kontrolerako erakunde publikoen fiskalizazio-printzipio nagusiekin bat etorritik gauzatu dugu, eta, zehazki, ISSAI-ES 200en finantza-fiskalizazioari buruz eta ISSAI-ES 400en, betetze-fiskalizazioari buruzkoan, ezarritakoeekin, eta kanpo-kontrolerako organoen fiskalizazio-gida praktikoeekin bat etorritik. Printzipio horiek eskatzen dute etika-eskakizunak betetzea, bai eta fiskalizazioa planifikatzea eta gauzatzea ere, kontu orokorrak akats materialik ez duela eta finantzatutako egoera-orrietan jasotako jarduerak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi esanguratsu guztietan, indarrean dagoen araudiarekin bat datozela ziurtatzeko.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplikatu ditzagula auditoretza-ebidentzia bat lortzeko zenbaterokoei eta Kontu Orokorrean adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela arriskuaren balorazioa, hala iruzur edo errakuntzaren ondorioz kontu orokorrek akats materialak izatearen arriskuarena nola lege-urraketa muntadunak egotearen arriskuarena. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan —entitateak kontu orokorrak egin dituzan garrantzitsua baita— inguruabarren arabera auditoretza-prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez.





Auditoretza batek barnean biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasunaren eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizko-tasunaren ebaluazioa, bai eta Kontu Orokorraren aurkezpenaren ebaluazioa ere, oro har.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia eskaintzen du finantzen eta betetzearen gaineko gure fiskalizazio-iritzia funtsatzeko.

IV.1. Auditoretza finantzarioko iritzia

Auditoretza finantzarioko iritzia

Gure ustez, honekin batera doan Kontu Orokorrak, alderdi esanguratsu guztietan, udalaren 2020ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza-egoeraren irudi fidela adierazten du, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiko ekonomia- eta aurrekontu-emaizena ere, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoaren arau-esparruarekin bat etorri eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate-printzipio eta -irizpideekin bat etorri.

IV.2. Legeria betetzeari buruzko iritzia

Iritziaren oinarria, salbuespenekin

- Udalak 2,57 milioi euroko gastuak ordaindu ditu, zerbitzu-prestazioei dagozkienak, kontratuen gehieneko indarraldia igaro ondoren.
- Aurretiatzko esku-hartze mugatuak ez ditu betetzen Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen aurreikuspenak, arrazoi hauengatik:
 - a) Udalbatzak ez ditu zehaztu kudeaketa-prozesuan garrantzia duten alderdiak, zeinak aurretiatzko kontu-hartze mugatuaren bidez egiaztatatu behar baitira.
 - b) Ez da egiten aurretiatzko esku-hartze mugatua eragin zuten egintza, dokumentu edo espedienteen lagin adierazgarri baten gaineko ondorengo esku-hartze osoa.

Legezketasuna betetzeari buruzko iritzia, salbuespenekin

Gure iritziz, “Iritziaren oinarria, salbuespenekin” paragrafoan deskribatutako gertakarien ondorioengatik izan ezik, eta berrikusitako lanaren irismena kontuan hartuta, 2020ko ekitaldiko udalaren egoera-orri finantzarioetan islatutako jarduerak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz aplikatu beharreko arauekin, alderdi esanguratsu guztietan.



**V. Egoera-orri finantzario bateratuak****V.1. 2020ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazio-egoera bateratua**

(Udala eta erakunde autonomoak)

Gastu-aurrekontuaren betetzea Sailkapen ekonomikoa

Gastuak	Hasierako kreditua	Aldak.	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Ordainketak	Betetzea (%)	Ordainketak (%)
1. Langileak	96.021.009	8.858.760	104.879.768	104.262.953	104.036.604	99	100
2. Ondasun arruntak	72.607.256	2.017.578	74.624.835	69.216.231	53.974.675	93	78
3. Finantza-gastuak	775.000	0	775.000	523.632	523.632	68	100
4. Transf. arruntak	11.314.816	2.016.522	13.331.338	12.568.460	11.413.613	94	91
6. Inbertsioak	2.394.200	19.114.481	21.508.681	13.044.618	8.137.318	61	62
7. Kapital transf.	25.000	1.763.475	1.788.475	1.760.205	853.857	98	49
8. Finantza-aktiboak	277.200	0	277.200	204.312	184.809	74	90
9. Finantza-pasiboak	8.814.000	0	8.814.000	8.803.707	8.803.707	100	100
Guztira	192.228.481	33.770.816	225.999.297	210.384.118	187.928.215	93	89

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea. Sailkapen ekonomikoa

Diru-sarrerak	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Kobrantzak	Gauzatura (%)	Kobrantzak (%)
1. Zuzeneko zergak	53.836.000	0	53.836.000	56.663.891	52.574.052	105	93
2. Zeharkako zergak	6.073.573	0	6.073.573	8.561.516	7.973.363	141	93
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	28.792.600	0	28.792.600	33.884.102	27.137.401	118	80
4. Transferentzia arruntak	97.979.408	4.777.417	102.756.825	115.285.283	115.176.070	112	100
5. Ondare-sarrerak eta herri-aprobetxamenduak	2.930.500	0	2.930.500	2.716.637	1.852.848	93	68
6. Inbertsio errealak besterentzea	0	2.812.447	2.812.447	2.797.056	2.797.056	99	100
7. Kapital-transferentziak	2.239.200	5.793.347	8.032.547	6.684.472	6.053.879	83	91
8. Finantza-aktiboak	377.200	11.573.700	11.950.900	179.082	49.173	1	27
9. Finantza-pasiboak	0	8.813.905	8.813.905	0	0	0	0
Guztira	192.228.481	33.770.816	225.999.297	226.772.039	213.613.842	100	94



**V.2. 2020ko ekitaldiko aurrekontu-emaitza bateratua**

(Udala eta erakunde autonomoak)

Kontzeptua	2019	2020
Aitortutako eskubide garbiak	215.880.872	226.772.039
Aitortutako betebeharrak garbiak	-204.328.890	-210.384.118
Aurrekontu-emaitza	11.551.982	16.387.921
Doitzeak		
Finantzaketaren desbideratze positiboa	-3.586.515	-5.697.188
Finantzaketaren desbideratze negatiboa	1.657.124	1.610.665
Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako gastuak	3.064.062	6.772.240
Aurrekontu-emaitza doitua	12.686.654	19.073.637

V.3. 2020ko ekitaldiko diruzaintzako gerakinaren egoera-orria

(Udala eta erakunde autonomoak)

Kontzeptua	2019	2020	Aldea (%)
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	50.444.932	51.013.768	1
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: uneko ekitaldia	14.078.455	18.113.324	
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	51.785.608	48.908.298	
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	242.749	247.042	
(+) Ordainketen itzulketak	124	2.755	
(-) Nekez kobratzeko eskubideak	-15.633.934	-16.218.081	
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-28.070	-39.570	
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	-63.604.236	-65.949.274	4
(-) Gastuen aurrekontua: uneko ekitaldia	-21.157.126	-27.368.775	
(-) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	-32.696.086	-28.420.318	
(-) Aurrekontuz kanpoko gastuak	-9.615.374	-10.000.096	
(-) Egiteke dauden itzulketak	-142.628	-172.826	
(+) Aplikatzeke dauden gastuak	6.978	12.741	
(+) Diruzaintzako funts likidoak	66.434.589	88.808.665	22
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	22.087.207	22.332.195	1
Diruzaintzako gerakina, guztira	75.362.490	88.205.353	17
Atxikitako finantzaketa duten gastuen diruzaintzako gerakina	25.195.458	28.743.242	14
Diruzaintzako gerakina, baliabide atxikiak direla-eta	28.252.109	23.878.313	-15
Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarakoa	21.915.014	35.583.808	62





V.4. Egoeraren balantze bateratua 2020ko abenduaren 31n

(Udala, erakunde autonomoak eta Comiruña SA eta Pamplona Centro Histórico SA udal enpresak)

Deskribapena	2019. urtea	2020. urtea	Deskribapena	2019. urtea	2020. urtea
A Ibilgetua	1.237.525.109	1.245.639.376	A Funtz berekiak	1.255.822.111	1.071.889.266
1 Ibilgetu materiala	557.447.025	558.482.841	1 Ondarea eta erreserbak	806.536.336	634.882.945
2 Ibilgetu ez-materiala	22.732.270	22.803.734	2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	25.512.242	31.539.991
3 Erabilera orokorrerako azpi-egiturak eta ondasunak	648.815.254	655.286.264	3 Kapitaleko dirulaguntzak	423.773.533	405.466.330
4 Herri-ondasunak	0	0	B Arriskueterako eta gastuetarako hornidurak	0	213.378.578
5 Ibilgetu finantzarioa	8.530.560	9.066.537	4 Hornidurak	0	213.378.578
B Zenbait ekitalditan banatu beharreko gastuak	0	0	C Epe luzeko hartzekodunak	60.522.352	52.634.159
6 Deuseztatu beharreko gastuak	0	0	4 Jesapenak, maileguak eta jasotako fidantzak eta gordailuak	60.522.352	52.634.159
C Zirkulatzaila	112.364.405	128.780.098	D Epe laburreko hartzekodunak	33.545.051	36.517.471
7 Izakinak	9.618.183	10.331.398	5 Aurrekontu itxietako eta aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	33.516.981	36.477.901
8 Zordunak	34.227.022	35.965.273	6 Aplikatzeko dauden partidak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	28.070	39.570
9 Finantza-kontuak	68.511.462	82.465.144			
10 Finantza eg. iragankorrak, aplikatzeko dauden aldizkatze-doitzeak	7.738	18.283			
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	0	0			
Aktiboa, guztira	1.349.889.514	1.374.419.474	Pasiboa, guztira	1.349.889.514	1.374.419.474





VI. Konklusioak eta gomendioak

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganbera honen ustez fiskalizazio txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarriren bat ere.

Orobat, fiskalizazio-txostenaren gaineko iritziaren salbuespenei buruzko informazio xehea gehitu da.

Halaber, txostenak jasotzen ditu Ganbera honen ustez udalaren eta haren mendeko erakundeek kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

Aipatzekoa da ikuskatutako ekitaldian gertatutako COVID-19aren osasun-krisiaren ondoriozko salbuespenezko egoera. Krisi horrek tokiko administrazio-kudeaketa egokitzeko prozesu garrantzitsua ekarri zuen, eta hainbat prozedura geldiarazi edo moteldu ditu udaleko hainbat arlotan.

VI.1. Aurrekontu orokorra

Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2020rako hasierako aurrekontu bateratuak, 2019ko aurrekontuaren luzapenak, 192,23 milioiko gastu eta diru-sarreraren hasierako aurreikuspenak zituen.

33,77 milioiko aurrekontu-aldaketa batzuk eginda —hasierako kredituen ehuneko 18 egiten dute—, behin betiko aurreikuspenak 226 milioikoak izan ziren. Aldaketan ehuneko 57 inbertsio errealek 6. kapituluari dagozkio.

Aurrekontu-likidazioa

2020an gastuak 210,38 milioi izan ziren, ehuneko 93ko exekuzio-mailarekin. Gastu horiek 2019koak baino ehuneko hiru handiagoak izan ziren.

Diru-sarrerei dagokienez, 2020an 226,77 milioiko eskubideak aitortu ziren, behin betiko aurreikuspenen ehuneko 100eko egikaritze-mailarekin. Aurreko urtearekin alderatuta, diru-sarrerak ehuneko bost igo dira.

Taula honetan ageri dira udalaren eta haren erakunde autonomoen gastuen xedea eta finantzaketa, ehunekotan:

Gastuaren izaera	Ehunekoa	Finantzatze-iturria	Ehunekoa
Langileak	50	Tributu bidezko diru-sarrerak	37
Bestelako gastu arruntak	39	Transferentziak	54
Inbertsio errealak	6	Ondare bidezko diru-sarrerak eta bestelako diru-sarrerak	9
Kapital-transferentziak	1		
Finantza-aktiboak eta -pasi-boak	4		





Gastu arruntek gastu guztien ehuneko 89 egiten dute. Pertsonal-gastuak gastatutako guztiaren ehuneko 50 dira, inbertsioak ehuneko sei eta ehuneko lau finantza-aktibo eta -pasiboei dagozkie.

Diru-sarreretan, tributu-jatorrikoek guztizkoaren ehuneko 37 egiten dute, eta transferentziek, ehuneko 54. Gainerako ehuneko bederatzitik ehuneko handiena prezio publikoei eta bestelako sarrerei dagokie.

Jarraian, 2019ko eta 2020ko ekitaldietako aurrekontu-likidazioarekin lotutako adierazle-multzo baten konparazioa erakutsiko dugu:

Adierazleak	2019	2020	Aldea (%)
Aitortutako eskubideak, guztira	215.880.872	226.772.039	5
Aitortutako betebeharrak, guztira	204.328.890	210.384.118	3
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	207.873.204	217.111.429	4
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	180.083.987	186.047.644	3
Kapitaleko diru-sarrerak	7.855.254	9.481.528	21
Kapitaleko gastuak	14.714.793	14.804.823	1
Saldo ez-finantzarioa	20.342.234	25.216.858	24
Aurrekontu-emaiza doitua	12.686.654	19.073.637	50

Aurreko bilakaeratik, honako hau nabarmendu behar dugu:

- Sarrera arruntak ehuneko lau gehitu dira eta kapitalekoak ehuneko 21. Hala ere, kopuru absolutuetan, transferentzia arruntek izan dute hazkunderik handiena. 11 milioitan handitu dira, COVID-19aren pandemiaren beharrei aurre egiteko toki entitatei ordaindutako ezohiko funtsaren, gizarte zerbitzuen eta berdintasunaren arloko dirulaguntzen gehikuntzaren eta aurreko urteetako montepioaren finantzaketari buruzko epaiaren betearazpenak eragindako erregularizazioaren ondorioz.

- Aitortutako gastuak eta funtzionamendu-gastuak ehuneko hiru gehitu dira, eta kapital-gastuak ia ez dira aldatu. Termino absolutuetan, gastuen guztizko hazkundera sei milioi ingurukoa izan da.

- Aurrekontuaren emaitza doitua, 19,07 milioikoa, ehuneko 50 handitu da 2019arekin alderatuta, balio absolututan 6,39 milioiko igoerarekin.





VI.2. Udalaren eta haren erakunde autonomoen egoera ekonomiko-finantzario finkatua 2020-12-31n

Taula honetan, 2020ko ekitaldiko adierazle ekonomiko-finantzario batzuk eta aurreko ekitaldikoekin alderatzen dira:

Adierazleak	2019	2020	Aldea (%)
Aurrezki gordina	27.789.218	31.063.785	12
Finantza-zama	9.388.043	9.327.339	-1
Aurrezki garbia	18.401.174	21.736.446	18
Finantza-zamaren indizea	% 4,5	% 4,3	-5
Aurrezki gordinek diru-sarrera arrunten gainean zenbat egiten duten (%)	13	14	7
Zor bizia	54.756.268	45.952.561	-16
Zorpetze-maila (zor bizia/diru-sarrera arruntak)	% 26	% 21	-20
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	21.915.014	35.583.808	62
Autonomia fiskala (tributuak/aitortutako eskubide garbiak)	% 42	% 37	-12
Kobratzea zalantzakoa den zordunen indizea (kobratzea zalantzakoa den zordunen saldoa/kobratzeko dauden zordunak)*100	% 24	% 24	0

Aurreko taulatik, honako alderdi hauek aipatu behar ditugu:

- 2020an aurrezpen garbia 21,74 milioikoa izan zen, eta finantza-karga 9,33 milioikoa izan zen. Adierazten du udalak nahikoa baliabide arrunt sortu zituela funtzionamendu-gastuei eta finantza-kargari aurre egiteko; azken horrek ehuneko bat egin zuen behera, eta horrek, diru-sarrera arrunten gehikuntzarekin batera, funtzionamendu-gastuena baino proportzio handiagoan, aurrezki garbia ehuneko 18 handitzea eragin zuen.

- Zor bizia 45,95 milioikoa da, eta ehuneko 16 murriztu da aurreko urtearen aldean; zorpetze-maila diru-sarrera arrunten ehuneko 21ekoa da, eta aurreko urtean, berriz, ehuneko 26koa.

- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina, 35,58 milioiko zenbateko positiboarekin, ehuneko 62 handitu da 2019arekin alderatuta.

Azken batean, udalaren finantza-egoera oso onbideratuta dago, aurrezki gordina eta garbiaren adierazle positiboekin (31,06 eta 21,74 milioi, hurrenez hurren) eta ehuneko 21eko zorpetze-mailarekin. Era berean, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 35,58 milioikoa da, eta aurreko ekitaldiarekiko nabarmen handitu da. Adierazle horiek guztiek 2011n hasi eta gaur egunera arteko bide positiboa berresten dute, 2017ko ekitaldian izan ezik, orduan atzerakada gertatu baitzen.





VI.3. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuak betetzea

Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa aplikatzearen eraginetarako, Kontabilitate Nazionaleko SEC 2010 irizpideei jarraituta, honako erakunde hauek jotzen dira tokiko administrazio publikotzat: udala bera, erakunde autonomoak, merkatukoak ez diren udal sozietateak (Pamplona Centro Histórico SA eta Animsa) eta Gayarre Antzokia Fundazioa.

2020ko urriaren 20an, Diputatuen Kongresuak, Ministroen Kontseiluak urriaren 6an hartutako erabakiaren ondoren, ezohiko larrialdi-egoera bat zegoela ikusi zuen, eta baldintza hori ezarrita dago LOEPSFren 11.3 artikuluan.

Neurri horrek berekin dakar eraginik gabe uztea egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak, eta gastu-araua ez aplikatzea 2020. eta 2021. urteetan. Zorpetze-eragiketak baimentzeko prozedurak bere horretan jarraitzen du, nahiz eta 2020an udalaren administrazio publikoaren sektoreak ez duen beste zor-eragiketarik hitzartu.

Era berean, merkataritza-zorraren iraunkortasuna betetzeari buruzko betebeharrak mantentzen dira. Egiaztatu dugu bete egin dela, ez baita gainditu berankortasunari buruzko araudian aurreikusitako 30 eguneko gehieneko epea.

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea	
Lehenengo hiruhilekoa	26,58
Bigarren hiruhilekoa	28,50
Hirugarren hiruhilekoa	29,24
Laugarren hiruhilekoa	22,16

Iturria: Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak argitaratutako datuak.

VI.4. Aurreko ekitaldietako gomendioen jarraipena

Honako gomendio hauek betetzen direla egiaztatu dugu:

- Balantzean sartu da udal montepioko sistematik eratorritako etorkizuneko bete-beharren gaineko hornidura, 212,8 milioikoa.

- Espedientean justifikatu da Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean Enplegu Publikoaren Eskaintzan sartutako lanpostuetarako ezarritako baldintzak betetzen direla, bai birjarpen-tasari dagokionez, bai enplegua egonkortzeari dagokionez.

Lehentasunez jotzat jotzen dugu 2019ko ekitaldiko fiskalizazioan eta aurrekoetan emandako gomendio hauek betetzea, oraindik bete gabe baitaude:





- *Kontu-hartzaitzaren barne kontrola areagotzea, kudeaketa ekonomikoa hobetzeko beharrezkoa eta ezinbestekoa den tresna baten gisara, eta hura ezartzea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean ezarritako hedadurarekin. Hau da, erabateko fiskalizazioa egitea aurrez fiskalizazio mugatua egin zaien eta udalaren diru-sarreraren barne-kontrola pasa duten gastuen lagin bati buruz kontrol finantzarioa eta eraginkortasunaren kontrola egitea.*
- *Osoko Bilkurak erabakitzea, kudeaketa prozesuan daukaten garrantziari erreparatuta, zein alderdi egiaztatuko diren eduki ekonomikoa duten ekintzen, dokumentuen edo espedienteen alde aurretiko kontu-hartzaitza egiterakoan.*
- *“2018. eta 2019. urteetarako Iruñeko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako funtzionarioen eta langile kontratatuen lan-baldintzei buruzko Akordioa” berrikustea, 2020an aplikatua, eta itunak udalaren eskumeneko gaietara mugatzea.*

VI.5. Kudeaketa-alor garrantzitsuak

VI.5.1. Alderdi orokorrak

2020ko aurrekontu-proiektua ez zen onetsi, eta, horretarako, aurreko ekitaldikoa luzatu egin zen, 2019ko abenduaren 30eko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez. Luzapen espedienteak aurrekontu-kudeaketari buruzko 270/1998 Foru Dekretuan aurreikusitako baldintzak betetzen ditu.

2020ko aurrekontuen likidazioa Alkatetzaren ebazpen bidez onetsi zen, 2021eko apirilaren 29an.

Kontu Orokorrari buruz egindako berrikuspenetik, honako hau adierazi nahi dugu:

- “Likidazioan dagoen Iruñeko Udalaren Energia Operadorea SL” sozietatea 2020ko azaroaren 27ko Batzar Orokor Unibertsalaren erabakiaren bidez likidatu eta desegin zen behin betiko. Erabaki horretan likidazioaren azken balantzea onesten da, eta aktibo guztien jabetza udalari transferitzea.

- Esku-hartzeak ez du eragozpenik jarri 2020an.

- Kanpoko profesionalek ikuskatu dituzte Haur Eskolak eta Hirigintza Gerentzia erakunde autonomoen, Gayarre Antzokia fundazioaren eta udalaren partaidetza nagusia duten enpresa publikoen (Comiruña SA, Pamplona Centro Histórico SA, Animsa eta Mercairuña SA) 2020ko kontuak, eta aldatu gabeko finantza-iritzia aurkeztu dute guztiek.

- Hirigintzako Gerentziako kanpo-auditoreen txostenaren arabera, oraindik ez dira aplikatu behin betiko likidazioa eta kontabilitate-itxiera ekitaldi-itxieran egiteke duten poligonoei buruzko gomendioak.

Legeria betetzeari buruzko auditoretzari dagokionez, honako hau da iritzia:





a) Langileen arloari dagokionez, ondorioztatzen da, oro har, erakunde autonomoetan, enpresa publikoetan eta Fundazioan aplikatu beharreko araudia betetzen dela.

b) Aurrekontuen kudeaketari dagokionez, oro har, erakunde autonomoetan, enpresa publikoetan eta Fundazioan aplikatu beharreko araudia betetzen dela ondorioztatzen da.

c) Kontratazio administratiboari dagokienez, honako gorabehera hauek aurkitu ditugu:

- Haur Eskoletan, aurreko adjudikaziodunak garbiketa-produktuen hornidura eskaintzen jarraitu du dagokion kontratazio-espeditentea egin gabe (43.823 euro), baina urte amaieran zegoen lizitazioa hasita zegoen eta 2021eko martxoan esparru-akordioa adjudikatu zen.

- Comiruña SA sozietatean 15.000 eurotik gorako ondasun eta zerbitzuak erosi dira, eta ez dago jasota dagokion lizitazio-prozedura (22.569 euro).

- Azkenik, Gayarre Antzerkia Fundazioak bi kontratu ditu mugaeguneratuta (180.000 euro), nahiz eta horietako bat lizitazio-prozesuan dagoen txostenaren datan.

Gomendatzen dugu:

- *Aurrekontua, aurrekontu-likidazioa eta kontu orokorra legez ezarritako epeetan onestea.*

- *Mendeko erakundeen kontratazioetan kontrola indartzea, lizitazio berrien plan-gintza egokia eginez.*

- *Bukatutako poligonoak ixtea eta behin betiko likidatzea.*





VI.5.2. Langile-gastuak

Udaleko langileen gastuak 94,94 milioikoak izan ziren, behin betiko kredituen % 99. Ekitaldian sortutako gastu guztien ehuneko 46 dira, eta aurreko ekitaldiarekiko ehuneko sei gehitu ziren.

Aurreko ekitaldikoekiko alderatzea taula honetan azaltzen dugu:

Aurrekontu-partida	2019ko AGB	2020ko AGB	Aldea	Al- dea (%) 20/1 9
Gobernu-organoen oinarrizko ordainsariak eta beste ordainsari batzuk	991.862	1.060.155	68.293	7
Behin-behineko langileen oinarrizko ordainsariak eta bestelako ordainsariak	2.078.795	2.287.612	208.817	10
Funtzionarioen oinarrizko ordainsariak eta administrazio-kontratua	28.426.240	32.430.258	4.004.018	14
Funtzionarioen eta administrazio-kontratudunen ordainsari osagarriak	14.697.667	14.400.887	-296.780	-2
Langile lan-kontratudun finkoen ordainsariak	1.277.856	1.308.134	30.279	2
Aldi baterako langile lan-kontratudunen ordainsariak	6.238.355	6.786.939	548.584	9
Kuota sozialak	13.132.258	13.363.792	231.534	2
Pentsioak eta gizarte zerbitzuak	22.134.529	22.550.904	416.375	2
Langileen gizarte gastuak	302.746	303.852	1.106	0
Familia-osagarria	443.972	443.254	-718	0
Guztira	89.724.279	94.935.786	5.211.507	6

Azpimarratzekoa da funtzionarioen oinarrizko ordainsarien ehuneko 14ko igoera, batez ere 2019ko abuztuan administrazio-ko langile kontratatuei gradua ordaintzen hasi zitzaielako. 2020an urte osoan ordaindu zen, lau urteko atzerapenak erregularizatzeaz gain. Ordainketa horrek aurreko ekitaldian baino 3,24 milioi gehiagoko gastu aitortua ekarri du.

Bestalde, handitu egin da aldi baterako lan-kontratuko langileen ordainsarien partida, tailer-eskoletako ikasleak kontratatzeagatik, haien prestakuntza-programaren bigarren etaparen esparruan. Halaber, jarduera txikiagoak eragindako gastu-murrizketak gertatu dira, COVID-19aren pandemia dela eta, enplegu sozial babestuko programetan eta sanferminetan.

Aurreko urteetan bezala, pentsioen eta gizarte-prestazioen gastuak ehuneko bi egin du gora, erretiroko batez besteko pentsioak gora egin duelako.

Alderdi orokorrak

Egiaztatu dugu, oro har, nominako ordainsari-kontzeptuak behar bezala egozten zaizkiola aurrekontuari.

Langileen gastuen barne-kontrolari dagokionez, Ganbera honek aurreko txostentan behin eta berriz adierazi duen bezala, udalak ez du nominaren aurretiko eskuhartzerik egin, ez eta geroko kontrolik ere.





Horri dagokionez, 2020ko Kontu Orokorraren esku-hartze txostenak kontrol hori ez egiteko arrazoiak azaltzen ditu, gaur egungo barne-prozedurek kontrol hori egitea eragozten dutenarekin lotuta daudenak.

Plantilla organikoa

Iruñeko Udalaren Oroitidazkian dagoen informazioaren arabera, hauek dira plantillako lanpostuak 2020ko ekitaldia ixtean:

Langileak	Udala
Plantillako lanpostuak	1.625
Lanpostu beteak	874
Lanpostu hutsak	751
Lanpostu hutsak, lanpostu guztiekiko (%)	46
Betetako lanpostu hutsak	600
Betetako lanpostu hutsak (%)	80
Bete gabeko lanpostu hutsak	151
Bete gabeko lanpostu hutsak (%)	20

2020an, plantillako lanpostu guztien ehuneko 46 hutsik daude; horietatik ehuneko 80 aldi baterako beteta daude, eta gainerakoek, ehuneko 20k, bete gabe jarraitzen dute. Azken batean, aldi baterako kontratazioaren ehunekoa, mugagabe ez-fin-koak barne, ehuneko 41ekoa da ekitaldia ixtean.

Plantillako lanpostuen araubide juridikoa honako hau da:

Sailkapena	2019	2020
Izendapen libreko langileak	41	43
Funtzionarioak	1.356	1.346
Lan-kontratadun langileak	232	236
Guztira	1.629	1.625

Plantillako 1.625 lanpostuetatik, ehuneko 83 funtzionario-erregimenekoak dira, ehuneko 14 lan-erregimenekoak, eta gainerako ehuneko hiru behin-behineko langileak dira, funtzionarioen arteko izendapen askeko lanpostuak barne.





Honako hau da plantillaren banaketa, udal alorren arabera:

Udalaren alorra	Lanpostu kopurua	Guztizkoaren gaineko portzentajea
Herritarraren Segurtasuna	498	31
Gizarte Zerbitzuak, Komunitate Ekintza eta Kirola	411	25
Proiektu Estrategikoak, Mugikortasuna eta Jasangarritasuna	177	11
Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteria	166	10
Zerbitzu Orokorrak	142	9
Hirigintza, Etxebizitza eta Osasuna	124	8
Kultura eta Berdintasuna	52	3
Gobernu Estrategikoa, Merkataritza eta Turismoa	43	3
Alkatetza	12	1
Guztira	1.625	100

Egin den berrikuspenetik honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Udalak onetsi egin zuen plantilla organikoa, Toki Administrazioari buruzko Foru Legean (aurrerantzean, TAFL) xedatutakoaren arabera, eta 2020ko apirilaren 15eko 78. NAOn argitaratu zen behin betiko onespina. Ondoren, plantillaren aldaketa bat onetsi zen, honako hau, hain zuzen:

Haur eta Familien Prebentziorako koordinatzaile buruaren lanpostua sortzea, Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko azaroan hartutako erabakiaren bidez egina eta NAOn argitaratua. Lanpostu berri horri errekurtsioa jarri zaio Nafarroako Administrazio Auzitegian (NAA), eta hark ebatzi du Tokiko Gobernu Batzarrak ez duela eskumenik plantilla organikoa aldatzeko, eta, beraz, lanpostuaren sorrera ez datorrela bat zuzenbidearekin. Udalak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri du ebazpenaren aurka, eta oraindik ebatzi gabe dago.

- Plantilla modu inplizituan aldatu da oposizio mugatu bidezko sustapen-prozedura baten bidez, 26 ikuskatzaile-laguntzaile lanpostu (D maila) Hiri Kontserbazioko Ikuskapeneko ofizial (C maila) bihurtuz. Onetsitako plantillak prozedura horiek aurreikusten ditu, baina modu orokorrean bakarrik, lanpostu berriak sortu gabe eta sortu beharreko lanpostu kopurua zehaztu gabe.

Lan-eskaintza publikoa eta aldi baterako enplegua berrezartzeko eta egonkortzeko tasaren azterketa

2020ko lan-eskaintza publikoaren (LEP aurrerantzean) egoera aztertu dugu, enplegua berrezartzeko eta egonkortzeko tasei dagokienez. Udalak 2020rako LEPa onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiaren bidez, 2020ko abenduaren 24ko NAOn argitaratua.

Horiek aztertuta, alderdi hauek nabarmentzen ditugu:

- LEPak 119 lanpostu biltzen ditu guztira; birjartze-tasa gisa 40 lanpostu zenbaitzen dira, eta aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa gisa 79 lanpostu.





Egiaztatu dugu, oro har, birjarpen-tasa gisa sartutako lanpostuek Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak (aurrerantzean, EAOL) ezarritako baldintzak betetzen zituztela LEPeen sartzeko. Hala ere, 2019ko LEPeen sartutako lanpostu bat antzeman dugu, eta, beraz, ez luke 2020an egon behar.

Aldi baterako enpleguaren egonkortze-tasari dagokionez, aurreko hiru urteetan lanpostua betetzeko baldintza egiaztatu dugu, eta kasu guztietan betetzen da.

Hala ere, giza baliabideen arloak jakinarazi duenez, egonkortze-tasaren arabera eskain daitezkeen lanpostu gehiago egon arren, ez dira sartu, aldez aurreko azterketa bat egitea komeni delako eta deialdiak denboran zehar banatu behar direlako, hautaketa-prozesuen kudeaketa egiteko dagoen gaitasuna kontuan hartuta.

• 2016-2020 LEPeen jarraipena egin dugu, eta ekitaldi-itxieran honako hau da haien egoera:

Egoera (lanpostuak)	2016	2017	2018	2019	2020	Guztira
Iraungita	3	-	-	-	-	3
Gauzatua	10	22	9	23	-	64
Egiten ari da	-	11	-	12	25	48
Gauzatzen, aurrerapenik gabe	1	4	2	7	-	14
Egin gabe dago	-	2	5	91	94	192
Guztira	14	39	16	133	119	321

Lanpostu guztien ehuneko 79 deitzeke edo gauzatze bidean daude 2020aren amaieran, eta horietatik ehuneko 90 azken bi LEPei dagozkie.

2019arekiko aldea honako taula honetan ikus daiteke:


Egoera (lanpostuak)	2019	2020	2019/2020 ald.
Iraungita	3	3	-
Gauzatua	34	64	30
Egiten ari da	50	48	-2
Gauzatzen, aurrerapenik gabe	29	14	-15
Egin gabe dago	89	192	103
Guztira	205	321	116

2020an, 2019an hasitako 30 udaltzain lanpostuko prozesu bakarra amaitu da.

Bestalde, kontuan hartuta deialdi bakoitzak antzeko lan-karga dakarrela, bete beharreko lanpostu kopurua edozein dela ere, 2016-2020 LEPetatik eratorritako deialdiak aztertu ditugu, eta haien egoera 2020rako itxieran honako hau da:

Egoera (deialdia)	2019ko egoera	2020ko egoera	2019/2020 aldea
Gauzatua	3	4	1
Egiten ari da	4	5	1
Gauzatzen, aurrerapenik gabe	5	6	1
Egin gabe dago	52	65	13
Guztira	64	80	16





2016-2020 LEPEk eraginen lituzketen 80 hautaketa-prozesuetatik, ehuneko 81 oraindik deitu gabe daude.

2020an ez da aurrerapen nabarmenik egin deitutako eta deitzeko dauden hautaketa-prozesuetan, 2020ko LEParen ondorioz azken horiek izan duten gorakada izan ezik. Hori, neurri handi batean, pandemiaren ondoriozko egoerarekin lotu daiteke. 2021ean nolabaiteko hobekuntza antzeman da, bi prozesu amaitu eta hamar hasi baitira guztira abuztura arte. Hala ere, oraindik prozesu asko daude egiteke.

Deialdien lagina berrikustea

2020an egindako lau langile-deialdi berrikusi ditugu, eta, oro har, aplikatzekoa den araudiaren arabera garatu dira. Hala ere, honako alderdi hauek nabarmentzen ditugu:

- Hiri-kontserbazioko ikuskapeneko ofizialaren 31 lanpostuko deialdian, Estatutu Publikoaren testu bateginaren 15.6 artikuluan salbuespenez aurreikusitako prozedura murriztua erabili da, eta espedientean ez dago jasota prozedura hori erabili izanaren justifikaziorik.

- Deialdi mugatu horretan ez ziren alde zurretik plantilla organikoan sortu deialdirako aurreikusita zeuden lanpostuak.

- Udaltzain izateko 30 lanposturen deialdian akatsak antzeman dira prozesuko dokumentazioan, batez ere epaimahaiak hartutako erabaki guztiak aktan jasotzeari dagokionez.

- Aztertutako deialdietan ez dago deialdiari eta deialdiaren oinarri arautzaileei buruzko txosten juridikorik.

Langile-gastuaren egiaztapenak

- Langileek 2020ko iraileko nominari dagozkion oinarrizko soldata, osagarriak eta antzintasuna direla-eta jasotako zenbatekoa berrikusi dugu. Honako hauek izan dira berrikusitako ordainsariak eta haien zenbatekoak:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Oinarrizko soldata	2.248.160
Lanpostuko osagarria	363.375
Berriazko osagarria	233.173
Bateraezintasuneko osagarria	151.314
Foru legeko osagarria	119.630
Arrisku bereziko osagarria	58.617
Irakaskuntzako osagarria	28.312
Dedikazio eskusiboko osagarria	17.074
Lanpostuko eginkizunen osagarria	7.290
Lanaldiaren luzapeneko osagarria	851
Zuzendaritza postuko osagarria	538
Bosturtekoak	64.013
Hirurtekoak	13.806
Iraila, guztira	3.306.153





Zehazki, nominaren 14 kontzeptu azertu eta berrikusi ditugu (foru legearen osagarria bi osagarri biltzen ditu), 1.775 pertsonari dagozkienak eta 3,31 milioiko guztizko zenbatekoarekin; zenbateko hori iraileko nomina osoaren ehuneko 82 da.

Oro har, udaleko langileek egoki jaso dituzte berrikusitako ordainsari-kontzeptuak, plantilla organikoan dagozkien lanpostuetarako ezarritakoaren arabera.

Hala ere, honako akats hauek aipatu behar ditugu:

- Plantillan irakaskuntza-osagarri gisa jasotako ordainsariak ordaintzen jarraitzen da, eta EPTBen hala jasota dagoen osagarria ez zaie udaleko langileei aplikatuko.
- Aldeak antzeman dira lanpostu-osagarrietan, batzuk onetsita egon arren plantilla organikoan behar bezala jasotzen ez direlako, eta beste batzuk kalkulu-akatsengatik, nahiz eta azken horiek dagoeneko konpondu diren.

Azkenik, graduaren ordainketa berrikusi da, 2020ko abuztuan egindako atzeraeraginezko ondorioekin. Udala 2019ko abuztutik aurrera hasi zen administrazio-kontratudunei kontzeptu hori ordaintzen, baina 2015eko urtarriletik aurrerako atzeraeraginezko ondorioekin aplikatzeagatik zor diren zenbatekoen ordainketa 2020ko abuztuan egin da.

Udalak emandako informazioaren arabera, 377 hartzailei dagokie ordainsari hori, eta 2,75 milioiko kostua izan zuen guztira; horietatik 2,29 milioi ordainsari gordinari dagozkio, eta gainerakoa enpresak Gizarte Segurantzari egindako kotizazioari.

Ofizios ordaindutako zenbatekoei buruzko azterketa masiboa egin dugu; zenbateko guztien ehuneko 86 dira eta 308 langileri dagozkie. Oro har, kalkulua zuzena da. Gainerako hartzaileei dagokienez, laginketa bidezko azterketa egin da eta, oro har, kalkulaturako eta ordaindutako ordainsariak zuzenak direla ondorioztatu dugu.

Azkenik, udalak aparteko orduak ordaintzen ditu, NAAk 2017ko azaroko ebazpenean eta 2018ko azaroko probidentzia ebazlean zehaztutako kalkulu-irizpideen arabera. Hala ere, geroago, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazio-arekiko Auzien Salak, apelazio-epaian, beste irizpide bat ezarri du, eta NAAk ere onartu du 2020ko otsailean.





Gomendatzen dugu:

- *Beharrezkoak diren barne-prozedurak egokitzea, Esku-hartze Arloak nomina-ren aldez aurreko fiskalizazioa egin ahal izan dezan.*
- *Organo jurisdikzional eskudunak erabakitzen duen organoak plantilla organikoaren aldaketak onestea.*
- *Langileen deialdien eta deialdi horiek LEPen indarraldian gauzatzeko behar diren baliabideen plangintza berrikustea, eta aldi baterako enplegua egonkortzeko tasak baimendutako lanpostu guztiak sartzea, kontratazioan behin-behinekotasuna ahalik eta gehien murrizteko.*
- *Deialdia onetsi aurretik prozedura murriztuaren bidez bete nahi diren lanpostuak plantilla organikoan sartzea.*
- *Langileak hautatzeko prozesuen espedienteetan, deialdiari eta deialdiaren oinarri arautzailei buruzko txosten juridikoa sartzea, betiere prozedura mugatuena erabilera justifikatuz.*
- *Langileak hautatzeko prozesuetan aplikatu beharreko prozedura-arauak onestea, prozesu horietan jarduteko modu homogeenak finkatzeko.*
- *EPTBen jasotako beste osagarri mota bategatik "irakaskuntza-osagarria" deritzona egokitzea.*
- *Aparteko orduak ordaintzea, Nafarroako administrazio publikoetako langileen Ordainsarien Araudiaren arabera eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiak ezarritako irizpidearen arabera.*

VI.5.3. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak

Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak 68,15 milioi izan ziren, ekitaldian aintzatetsitako obligazio guztien ehuneko 33, eta behin betiko kredituen ehuneko 93 gauzatu dira.

Aurreko ekitaldiarekiko aitortutako gastu-jaitsiera ehuneko batekoa izan da.





Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak osatzen dituzten kontzeptu nagusiak eta 2019arekin alderatuta duten aldaketa honako hau da:

Deskribapena	2019ko AGB	2020ko AGB	2019/19 ald. (%)
Eraikinen eta bestelako eraikuntzen errentamenduak	312.249	420.527	35
Garraio-elementuen errentamendua	152.193	167.141	10
Kontserbazioa, konponketak eta mantentze-lanak Azpiegiturak eta ondasun naturalak	6.524.539	8.530.558	31
Kontserbazioa, konponketak eta mantentze-lanak eraikinetan eta bestelako eraikuntzetan	1.901.166	2.133.530	12
Makineria, instalazio teknikoak eta tresneria kontserbatzea, konpontzea eta mantentzea	489.792	545.882	11
Kontserbazioa, konponketak eta mantentze-lanak garraio-elementuetan	205.587	217.969	6
Bulegoko materiala	136.595	76.627	-44
Hornidurak	9.069.216	8.120.846	-10
Komunikazioak	591.410	878.531	49
Garraioak eta pleitak	210.538	239.474	14
Aseguruak	439.917	442.954	1
Tributuak	162.767	175.816	8
Zenbait gastu	4.556.860	4.648.248	2
Beste enpresa batzuek egindako lanak	43.807.279	41.096.329	-6
Argitalpen- eta banaketa-gastuak	235.150	210.816	-10

Honako gastu-lagin hau aztertu dugu:

Deskribapena	2020ko AGB
Aparkatze arautua MUGA	7.410.028
Ikastetxe publikoak garbitzea	2.166.543
Civivoxak. Jardueren kudeaketa	2.025.014
Kirol-instalazioetako jardueren kudeaketa	1.013.656
Civivoxak. Garbiketa-kontratua	354.917
Kultur programazioaren zabalkundeko kalte-ordaina	294.812
Civivox kalte-ordaina - Kudeaketa, programazioa eta garbiketa	237.527
Ikastetxe publikoak garbitzeko kontratuko kalte-ordaina	195.403
MUGA aparkatze arautuaren kontratuko kalte-ordaina	164.370
Kirol-instalazioak kudeatzeko kontratuko kalte-ordaina	64.622

Pandemia dela-eta kontratuak etetearen ondorioz 2020an aitortutako kalte-ordainak 1,08 milioi izan dira. Zenbateko handieneko bostak berrikusi ditugu, guztizkoaren ehuneko 89 osatzen dutenak.

